

METODOLOGIA FITXA

AIREAREN KALITATEAREN ESTATISTIKA (090203)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Airearen kalitatearen estatistika.

Eragiketaren kodea.

090203 (10/2023 Legea, azaroaren 9koa, 2023-2026 Euskal Estatistika Plana).

Erakunde arduraduna.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila.

Beste erakunde partaide batzuk.

EUSTAT - Euskal Estatistika Erakundea.

Gai-arloa.

Ingurumena.

Maiztasuna.

Urtekoa.

Eragiketa-mota.

Beste batzuk.

Metodologia datuen jatorriari jarraiki.

Datuak lortzeko (kutsadura-mailak) kontrolatzeko eta zaintzeko estazioetatik automatikoki urruneko konexioren bidez.

Helburuak

Estatistikaren honen helburu nagusia legez ezarritako kutsatzaileen kontzentrazio-mailak betetzen direla egiaztatzea eta kutsadura-parametroen bilakaerari buruzko jarraipena, da.

Aztertzeko aldagai nagusiak

- **Airearen Kalitatearen Indizea (AKI):** orduko AKI eta eguneko AKI.
- **Iraunkortasun adierazlea:** Iraunkortasun adierazlea urterokoa eta iraunkortasun adierazlea hilerokoa.
- **Material partikulatuak (PM10) eragindako aire-kutsadurarekiko esposiziopeko biztanleriaren adierazlea:** Hiriko biztanleek jaso dezaketen PM10 urteko batez besteko kontzentrazio haztatua adierazten du. Material partikulatu fina, PM10, 10 mikrometro (mikra) baino diametro txikiagoa duten partikulak dira.
- **Material partikulatuak (PM2,5) eragindako aire-kutsadurarekiko esposiziopeko biztanleriaren adierazlea:** Hiriko biztanleek jaso dezaketen PM2,5 urteko batez besteko kontzentrazio haztatua adierazten du. Material partikulatu fina, PM2,5, 2,5 mikrometro (mikra) baino diametro txikiagoa duten partikulak dira.

Eremua

Populazio-eremua:

Immisio datuak, airearen kalitatearen ebaluazioa egiteko, airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko instalatuta dauden estazioetan jasotzen dira; gutxi gora behera 55 estazio daude. Kontrolerako estazio horien kopurua urtez urte alda daiteke.

Lurralde-eremua:

Zaindu eta kontrolatzeko estazioak EAEren geografia osoan sakabanatuta daude eta 8 eremu geografikoren arabera daude sailkatuta: Enkarterriak - Nerbioi Garaia, Nerbioi Behera, Kostaldea, Donostialdea, Ibaizabal Garaia-Deba Garaia, Goierri, Arabako Lautada eta Euskal Erribera EAEren eremuan, balio adierazgarriak jasotzen dira. Ildo horretatik, AKI-rako gehienezko desagregazio-maila 8 eremu geografiko hauetan da.

Denbora-eremua:

Jasotako datuak urtean zehar erregistratutako neurketen ingurukoak dira.

Galde-sortak

Zabalkundea

• [Airearen kalitatearen estatistika \(090203\) - Euskadi.eus](https://euskadi.eus/090203)

• [Estatistika taulak: Ingurumen Kalitatea \(eustat.eus\)](https://eustat.eus/)